



SARE

URTARRILAK 10, BILBO

N **O** **w**

EUSKAL HERRIRA



t. 666.962.065
e. prentsa@sare.eus
w. www.sare.eus



URTARRILAK 10, BILBO NOW! EUSKAL HERRIRA

Eskaleta:

- Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Igor Elortzak bertso bana.
- Agus Barandiaranek eta Rafa Ruedak abeslari eta musikariek "Zenbat" kanta abestuko dute.
- Fermin Muguruzak eta Saroi Jauregiren lehen interbentzioa.
- Bi senideren mezua. Hegoa Arakama eta Maite Mangado.
- Fermin eta Saroiren bidez "argi dugu" dispertsioaren amaiera aldarrikatzeko ekimenaren deialdia.
- Agus, Rafa eta Aire Ahizpak "kalera kalera" abestea.
- Fermin eta Saroik hemendik aurrerako lanerako deialdia egitea.
- Amets, Maialen, Igorren bertso bana.
- "Zenbat" Agus eta Rafak abestua.

Saroi: 25 urte baino gehiago dira jada. Milaka pertsonaren giza eskubideak urratzen dituzte, espetxe barruan nahiz kanpoan. Urraketa planifikatua da, erabaki politiko baten ondorioa, eta minean eta mendekuan oinarritua. Preso eta senideei gehitutako zigorra da, besteren artean, Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren ebazpen baten arabera legezkoa ez dena. Dispertsioak asmo politikoz eraikitako egitura juridikoa dauka; erradiografia sozial bat sortzen du; baina, batez ere, bizitza gehiegiren eguneroko drama da.

Fermin: Guk ere ez dugu ulertzen gobernuek legearen barruan egin daitekeena ez egitea. Ez dugu ulertzen pertsona guztien giza eskubideak errespetatuak izan daitezen urratsik ez ematea. Ez dugu ulertzen konponbidea elikatu beharrean oztopoak jartzea. Eta, ez ulertzeaz gain, ez dugu onartzen. Ezin dugu zain segitu.

C'est une question de droits humaines.

Herri honek zilegi du giza eskubideen aldeko jarduna. Horregatik gaude hemen. Hasierako nitasunetik, norberaren etxeko goxotik, euskaldunok hain maitea dugun gutasunera

pasatuz, gaur plaza honetan eta bihar Euskal Herri osoan. Eta "gu" honetara, borondate bera duten herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu, sare indartsu bat osatzeko.

Senide 1, Maite Mangado: "Dispertsioa bizitza gehiegiren eguneroko zama bihurtu zaigu; 25 urte luzez. Gure sendiekin egoteko milaka km egitera behartuak ez izatea nahi eta behar dugu. Orain".

Senide 2, Hegoa Arakama: "Nous exigeons que nos droits et ceux de nos proches soient respectés. Maintenant."

Senide 1, Maite Mangado: " Por ley, a los presos vascos les corresponde estar en Euskal Herria. Por humanidad, les corresponde vivir al lado de sus seres queridos. En aras de la paz, les corresponde estar cerca de toda la ciudadanía vasca. Ahora."

Senide 2, Hegoa Arakama: " Sakabanaketa senideon aurkako zigorra da. Mendekua. Injustizia bat. Bakearen aurkakoa. Horregatik, guztiak etxeratzeko bidean, giza eskubideen alde dagoen pertsona oro dispertsioarekin amaitzeko aktiboa izatera gonbidatzen dugu".



SARE

Fermin: ¿y qué podemos hacer para cambiar esta situación y avanzar como sociedad?
Creemos que el pilar fundamental es seguir tejiendo y profundizando una red ciudadana que aúne sensibilidades diversas, que vaya más allá de siglas y objetivos políticos concretos.

Saroi: Guztiontzat hobeia izango den etorkizun baterako oinarri komun eta sendo bat eraikiko duen sarea. Horrek beharko luke erronka jendarte gisa. Eta hori da Sarek hartu duen konpromisoa.

Fermin: Porque es una cuestión de derechos humanos que interpela al conjunto de la sociedad. Para trasladar alto y claro un mensaje conjunto: NOW! Euskal Herrira. What we are asking for, here and now, it's full respect for human rights of basque prisoners and their families.

Saroi: Horregatik gaude hemen milaka herritar. Norberak egin dezakeenari balioa emanaz, ezberdinen arteko elkarlanari ekiteko asmoz. Gure arteko indarrak jakitun, dispertsioaren horma lurrarekin berdintzea lortuko dugula sinetsita gauden sarekideak gara. Eta pausoz pauso elkarrekin bide hori egiteko deia egiten dizuegu.

Fermin: Luza dezagun mezu bateratu bat: giza eskubideen urraketan oinarrituriko espainiar eta frantziar espetxe politika aldatu beharra dago. Salbuespen legediekin amaitu beharra dago. Munduari erakuts diezaiozun milaka euskal herritarrek argi dugula! Orain. Ahora. Mantenat. NOW! Euskal Herrira!

speaker-a (argi izpien ekimena).

*Agus, Rafa eta Aire Ahizpak (eta milak lagunek)
"kalera kalera." abestuko dugu.*

Saroi: Arrazoiak, bihotzak eta eskuak batuz mezu argi bat lau haizetara zabaltzen ari gara. Gaur hemen, Bilboko elkargunean, eta bihar, Euskal Herriko txoko guztietan.

Fermin: Contagiémonos de una idea: acabar con la dispersión es posible. Saretuz bai lor dezakegu. Giza eskubideen alde gauden guztiok, zer egiterik badugu.

Saroi: Erronka horri, sarekideok, dispertsioaren 500.000 liburuxka banatuz lagunduko diogu. Ondoko auzokidetik hasi, eta munduko txoko guztietako pertsona ugariri dispertsioaren errealitatea ezagutaraziko diegu. Zu ere sare honen parte izan zaitezke, eta elkarrekin dispertsioaren amaiera lor dezakegu. Guztiok gara beharrezkoak. Baita zu ere!

Fermin: Giza eskubide guztiak errespetatuko diren etorkizuna elkarrekin eraikitzeke, gaur, orain, presoan eta beren senideen giza eskubideak errespetatzea daitezen bermatzea dagokigu.

Biak: Guztion artean lortuko dugu!